

lausotu, baina irudi hark garbi-garbi dirau oraindik ere neure gogoan. Gerora jakingo nuen. 1937. urteko ekainaren hasierako egunetan gertatu zen hura.

Ote, sastraka eta sasitza artean genbiltzan korrika, baina ez nuen inongo zitzada, urratu edo minik nabaritzen. Hankak, zer egin behar zuten balekitez bezala zebiltzan lanean. Halako batean txapeldunak salto luzea egin eta atzetik joan nintzen beregan konfiantza osoa jarrita. Airean geundela zango biek in oldar egin, baina igarri ez genuen zulgune baten barruan amaitu genuen itzulipurdika. Bizpahiru txilipurdiren ostean zeramatzan esku-bonbak gerrikotik askatu zitzaizkion; eta arraro iruditu bazitzaidan ere, ez zion gertaera hari inolako garrantzirik eman, ostera ere eskutik heldu eta ihesean jarraitu genuen. Ardura bakarra handik ahalik eta arinen urruntzea zen. Bihotza bizi-bizi nabaritzen nuen bularrean, buruan, ostera, odol ponpaketaren danbadak nituen ttakun etengabe.

Konturatu ginenerako ilundu zuen eguna. Haize zorrotzak aurpegia mozten zigun, nekea nabaria zen, eta martxa moteltzen joan ginen erreka baten ondoan geratu ginen arte. Arnas estuka geunden biok, izerdiz bustita eta aurpegia gorrituta. Errekastoaren ertzean belaunikatuta tragoxka batzuk egin genituen eta aurpegia freskatu ostean zuzen begiratu zidan soldaduak.

- Eskapada ederra egin doguna, eh Matxin!- esan zidan irribarrea ahoan.
- Beste norbait naizela uste duzu! Nik Txomin dut izena, Ereineta baserrikoa.- erantzun nion irmo.
- Lasai Mutiko! Pipertu barik, gero! Niretzat gaurtik aurrera Matxin izango zara! Sekula ez dut inor ikusi mendian halako salto eta korrikaldirik egiten, izena ondo merezita daukazu! - erantzun zidan barrezka.
- Beldurak eraginda egin dut! Zu zeu ere ez zara makala, gero! - erantzun nion latsa galtzen hasita.
- Beharko! Lepoa jokoan dagoenean uste ez duzun hainbat gauza egiteko gai zara, ez da hala?

Gerrikoaren aldamenean zuen zorro batetik zatar-paperean bildutako zerbait atera zuen. Beste aldamenetik aiztoa. Atoan ogi puska eta gazta zati bat luzatu zizkidan.

- Jan ezazu, indarberritu behar dugu eta!

Nahiz eta goseak amorratuta egon jakitua haiek astiro-astiro dastatu nituen, ahoratuko nituen azken mokaduak izango balira bezala. Nik ez nion inongo